

## ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

# "NIRE MUNDUAREN ISLAK: BESTEEK NOLA IKUSTEN NAUTEN DESKUBRITZEA"

Jarduera-zk.: 2

**B(t)**  
Bizkaia with the talent



## Ikaskuntza-egoera

### Testuingurua:


Tokiko antzerki-konpainia batekin lankidetzan, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak "Expo-Ekin" ekimenean parte hartzera gonbidatuta daude. Ekimen horrek Introspektzio pertsonala eta sormenezko adierazpena uztartzen ditu. Proiektu horrek, antzerkigintzarako espazio bat eskaintzeaz gainera, gidoilari-lanetan nabarmentzeko aukera ematen die gazteei. Jarduerak bokaziozko esploraziorako zubi izatea du xede; horretarako, hausnartzera bultzatzen ditu ikasleak, beren interesak, balioak, eta trebetasunak zein diren eta horiek guztiak beren etorkizuneko erabaki profesionaletan nola eragin dezaketen azter dezaten.

### Abiapuntua:

Antzerki-konpainiak gogo biziz plazaratu du "Expo-Ekin: autoezagutzarako eta bokaziozko esploraziorako agertokia". Deialdi honetan, antzerkiaren munduan murgiltzera gonbidatzen dira ikasleak, batez ere istorio-sortzaile gisa. Horretarako, gidoiak idatziko dituzte beren ideiak hezurmamituz. Gidoi horien bidez, ikasleek beren buruaz zer pertzepzioa duten eta beren ustez besteek nola ikusten dituzten islatu beharko dute; horrela, hausnarketa eta autoesplorazioa sustatuko dira. Ikuspegi horren bidez, sormenezko idazketa baliatu nahi da norberaren eta besteen pertzepzioek etorkizuneko bokaziozko aukeretan nola eragin dezaketen ulertzeko.



ERANSKINA: [Gonbidapena](#)



## Helburuak:

Helburua da ikasleek beren burua hobeto ezagutzea eta ulertzea pertzepzio horiek nola eragin dezaketen beren bizitzako erabakietan eta bokaziozko hautuetan. Horrek erabakiak modu informatuagoan hartzea sustatzen du, beren nortasunarekin eta besteez haiengan ikusten dituzten gaitasunekin bat etorrira.

1. Autokontzientzia sustatzea kanpo-pertzepzioaren bidez.
2. Enpatia- eta komunikazio-trebetasunak garatzea.
3. Besteen pertzepzioek geure buruari buruz dugun irudian eta bokaziozko erabakietan nola eragin dezaketen hausnartzea.
4. Kanpoko pertzepzioek STEM eremuetako karreraren aukeraketan nola eragin dezaketen hausnartzea; horretarako, autokonfiantza sustatuko da, eta eremu horietan lan egiteko nahiak mugatu ditzaketen genero-estereotipoak desagerraraziko dira.
5. Espazio bat sortzea, ikasleek ikuspegi aniztasuna onar dezaten eta ikuspegi horiek baloratzen ikas dezaten.
6. Ikasleengan jomugen eta aspirazioen garapena sustatzea, etorkizun profesionala irudikatzen lagunduz, batez ere unibertsitatea edo lan-esparrua urruneko edo haien irismenetik kanpoko zerbait dela ikusten duten kasuetan.

### Funtsezko gaitasunak:

KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA  
ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII),  
HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO  
GAITASUNA (HKG), EKINTZAILTZARAKO  
GAITASUNA (EK)

### Descriptor Operativos:

KPSII1, KPSII3, KPSII4, HKG1, EK1, EK2;



## Saioaren deskribapena

### Atariko jarduera (ikasgelako saioaren aurretik)

#### Programako gidariaren zeregina:

Gidariak galdetegia eta hura betetzeko jarraibide zehatzak emango dizkie ikasleei. Ziurtatuko du ongi ulertu dutela zein den galdetegiaren helburua eta nola gauzatu behar duten. Gainera, galdetegia banatu eta biltzean, ikasleei laguntza eskainiko die zalantzarik edo arazorik badute, eta galdetegiak behar bezala bete direla egiaztatuko du ikasgelako hurrengo saioa baino lehen



ERANSKINA: [Galdetegia “nola ikusten naute”](#)

#### Ikasleen zeregina:

Eskola izan aurretik, ikasleek galderak egin beharko dizkiete senideei, lagunei eta bizilagunei. Horretarako, ikaslearen nortasuna, trebetasunak eta etorkizuneko karrerarako potentziala ebaluatzen dituen galdetegi bat erabiliko dute. Gutxienez bost galdetegi bete beharko dituzte.

Ikasleek jarraibide zehatzak jasoko dituzte galdetegiak etikaz eta errespetuz kudeatzeko. Konfidentzialtasunaren garrantzian eta inkestaturen iritziekiko errespetuan jarriko da fokua. Garrantzitsua da gutxieneko galdetegi-kopurua ezartzea, ondorengo analisirako datu nahikoak egongo direla ziurtatzeko.

Zeregin hori funtsezkoa da kanpoko ikuspegiak biltzeko. Ikuspegi horiek aberastu egingo dituzte ikasgelan ondoren gauzatuko diren gogoeta- eta sorkuntza-jarduerak.

1

### Gidoiak esploratzea eta sortzea: galdetegiak egiaztatzea

Saioa hastean, gidariak egiaztatuko du ikasleek beteta ekarri dituztela galdetegiak.

2

3

## Gidoiak esploratzea eta sortzea: esperientziak partekatzea

Ikasleek azkar batean azalduko dituzte inkestak egitean izan dituzten esperientziak, eta topatu dituzten alderdi interesgarriak edo desafiatzaileak nabarmenduko dituzte. Galdera hauek edo antzekoak egin dakizkieke:

- Inkestak egitean, zer izan zen deskubritu zenuen gauzarik harrigarriena?
- Izan zen bereziki atentziora eman zizun edo gogoeta eginarazi zizun erantzunik?
- Beste pertsona batzuei inkesta egiteko prozesuan, zer zati egin zitzaizun errazena edo zailena?
- Jasotako erantzunetan, nabaritu zenuen patroiren bat edo joeraren bat?
- Zer sentitu zenuen beste pertsona batzuek nola hautematen zaituzten entzutean?
- Izan zen espero ez zenuen erantzunik, edo zeure buruaz zenuen pertzepzioa zalantzan jarri zizunik?
- Erantzunek zeure burua nola ikusten duzun islatzen dutela uste duzu, edo bestelakoa da zeure buruaz duzun pertzepzioa? Zergatik?
- Erronkarik izan zenuen inkestatutako pertsonen erantzunak jasotzean?

4

## Gidoiak esploratzea eta sortzea: proiektuaren sarrera

Jardueraren helburuak errepatatuko dira, labur-labur, eta nabarmenduko da ezen kanpoko datuak biltzeko prozesuak erraztu egiten duela nork bere burua esploratzea eta bokaziozko erabakiak hartzea. Gainera, bideoa ikusteko gonbidapena egingo da. Bideoa ikusi ondoren, ikasleek hitza hartzeko saio azkar batean parte hartuko dute. Bertan, ikasle bakoitzak hitz edo esaldi labur bat esango du, bideoak iradoki diona laburbiltzeko.



**Aberaste-jarduera:** Idatzi hitza/esaldia arbelean edo espazio partekatu batean (digitala edo fisikoa). Horrela, bideoak sortu dituen inpresio komunak edo desberdinak ikusi ahal izango dituzte ikasleek.



**Bideoa:** [“¿Cómo nos vemos? ¿Cómo nos ven los demás?”](#)

### Gidoiak esploratzea eta sortzea: Inkestetako datuen azterketa (10 minutu)



Ikasleak talde txikitan jarriko dira, eta lortutako erantzunak berrikusi eta eztabaidatuko dituzte, gainerakoek haiei buruz dituzten funtsezko joerak eta pertzepzioak identifikatzeko. Galdetegiak aztertzen laguntzeko, eman talde bakoitzari bi zutabe hauek dituen analisi-fitxa bat: "Harrituta utzi ninduten pertzepzioak" eta "Nire autoirudiarekin bat datozen pertzepzioak". Ikasleek bi zutabeak osatu behar dituzte, jasotako erantzunetan oinarrituta.



### ERANSKINA: [Pertzepzioak aztertzeko fitxa](#)

Jardueraren arduradunak ikasleei jakinarazi behar die bildutako informazioa aztertzea funtsezkoa dela ulertzeko beste pertsona batzuek nola ikusten dituzten eta nola den posible pertzepzio horiek bat ez etortzea ikasleek beren buruaz duten irudiarekin. Ikasleek talde txikitan egingo dute analisia. Analisi hori bideratzeko, jarraibide labur eta argi hauek eman diezazkiezu ikasleei:

- Berrikusi jasotako erantzun guztiak, eta idatziz jaso maiz errepikatzen diren ideiak edo pertzepzioak.
- Identifikatu inkestatuek sarrien nabarmentzen dituzten pertzepzio positiboak edo ezaugarriak.
- Alderatu pertzepzio horiek zeuen buruaz duzuen ikuspegiarekin. Bat datoz edo desberdinak dira?
- Eztabaidatu ea erantzunen batek harrituta utzi zintuzten edo beste zerbait espero zenuten.
- Hausnartu ea erantzunetan eredu komunik baden, esate baterako, ea ondo ezagutzen zaituztenek antzeko iritziak edo iritzi desberdinak dituzten.
- Zuen ustez, nola eragin dezakete pertzepzio horiek zuen etorkizuneko erabaketan, esate baterako, karrera bat edo helburu pertsonal bat aukeratzean? Partekatu erantzuna taldean.

### Gidoiak esploratzea eta sortzea: Gidoiak sortzea (20 minutu)

Fase honetan, orienta itzazu ikasleak beren pertzepzioak lankidetzan oinarritutako narratiba esanguratsu batean txerta ditzaten. Ikasle bakoitzak galdetegietan jasotako pertzepzio gako bat hautatu behar du, dela harrituta utzi duen pertzepzio bat, dela bere autoirudiarekin bat datorren pertzepzio bat. Gida itzazu pertzepzio horiek modu koherentean aztertuko dituen istorio bakarra eraiki dezaten taldean.

Adierazi ikasleei hiru zati hauetan egituratu behar dutela gidoia: sarrera, non aukeratutako pertsonaiak eta pertzepzioak aurkeztuko diren; garapena, non autoirudiaren eta kanpoko pertzepzioen arteko gatazka edo bat-etortzea dramatizatuko diren; eta ondorioa, non pertsonaiek gogoeta egingo duten pertzepzio horiek beren buruaren ikuspegian izan duten eraginari buruz.

Denbora mugatua denez, anima itzazu taldeak kanpo-pertzepzioen eta pertsonaiaren autoirudiaren arteko kontrastea edo bat-etortzea erakusten duen eszena gako batean jartzera fokua. Taldeek ez badute lortzen elkarrizketa zehatzik osatzea, istorioaren ideia nagusiak eta pertsonaien arteko interakzioak jasoko dituen **laburpen narratibo** bat garatu dezatela iradokiko dugu.

Gainbegira ezazu prozesua egiaztatzeko ikasle bakoitzak bere pertzepzio pertsonalarekin parte hartzeko aukera duela eta gidoiak kanpoko pertzepzioen eta pertsonaien autoirudiaren arteko oreka islatzen duela.



**ERANSKINA:** [Gidoia egiteko txantiloia](#)

Hona hemen ikasleei eman diezazkiekezun iradokizun labur batzuk gidoiak garatzen laguntzeko:

- Gidoiaren oinarria eraikitzeko, aukeratu galdetegietan behin eta berriz agertzen diren kanpoko pertzepzio bat edo bi, eta alderatu pertzepzio horiek pertsonaren autoirudiarekin.
- Banatu gidoia bi eszenatan: eszena batean ikasleen ustez besteek nola ikusten dituzten erakutsiko da, eta beste eszenan, berriz, beren burua nola ikusten duten.
- Gidoiko elkarrizketak edo egoerak sortzeko, baliatu galdetegietan aurkitutako adibide zehatzak, hala nola esaldi edo ezaugarri nabarmenak.
- Txertatu kanpoko pertzepzioek pertsonaiaren erabakietan edo portaeretan eragiten duten eguneroko egoerak edo egoera profesionalak (batez ere STEMekin lotutakoak).
- Dramatizatu barneko edo kanpoko gatazka bat, non kanpoko pertzepzioak ez datozen bat autoirudiarekin. Ebatzi gatazka gidoian zehar.
- Tonuak sortzailea eta pertsonala izan behar du une oro: umorea, hausnarketa edo hunkiberatasuna balia dezakezue pertzepzio horiek pertsonaiari nola eragiten dioten transmititzeko.

### Itxiera (10 minutu)

- **Zirriborroak arin-arin aurkeztea eta atzeraelikatzea (5 minutu):** Talde bakoitzak aurkeztuko du zein den bere funtsezko pertzepzioa eta nola txertatu zuten gidoian. Ondoren, gelakideen eta programaren gidariaren hasierako iruzkinak jasoko ditu.
- **Amaiera planifikatzea (5 minutu):** Saioaren ondoren, gidoiak amaitzeko eta hobetzeko jarraibideak emango zaizkie ikasleei, eta hurrengo saioetan aurkezpen bat edo eztabaida bat egiteko prestatuko dira.



**Aberaste-jarduera:** Talde bakoitzak sinopsi labur bat entregatu dezake aukeratutako pertzepzioari eta pertzepzio horrek gidoian duen eraginari buruz. Horrela, ahozko aurkezpenak arinduko dira eta lan guztiak partekatu ahal izango dira.



### Baliabideak:


- Ordenagailuak/Wifi-konexioa
- Galdetegi beteak
- Idazteko materiala: gidoiak idazteko boligrafoak, arkatzak eta papera, edo ordenagailuak.
- Lan-eremu egokia



## Gauzatzeko gomendioak




Ziurtatu Interneterako konexioa dagoela, ikasleek jardueran zehar bideoak ikusi eta tresna digitalekin lan egin ahal izan dezaten.



Sortu ingurune errespetuzkoa eta enpatikoa. Ziurtatu ikasle guztiek sentitzen dutela interakzioetan eta eztabaidetan gainerakoek kasu egiten dietela eta baloratu egiten dituztela.



Ezarri kronograma argi bat, jardueraren fase bakoitzerako muga-egunekin, eta ziurtatu ikasleek denbora nahikoa izango dutela gidoia prestatzeko eta idazteko.



Animatu ikasleak sortzaile izatera beren gidoiak idazten dituztenean, eta eman aukera jasotako pertzepzioak beren modura adieraz eta interpreta ditzaten.



Jardueraren gidariak orientatzaile-profila izatea komeni da.

Gutxi gorabeherako denbora:

50 minutu

## Ebaluatzeko errubrika

<b>Irizpideak</b>	<b>Bikain 5</b>	<b>Ongi 4</b>	<b>Onargarri 3</b>	<b>Nahikoa 2</b>	<b>Hasiera 1</b>
<b>Auto-ezagutza</b>	Bere interesak, trebetasunak eta nahiak sakon ulertzen dituela erakusten du.	Ea ondo ulertzen dituen bere interesak eta trebetasunak.	Bere interesei eta trebetasunei buruzko oinarrizko ulermena duela erakusten du.	Bere interesak eta trebetasunak ulertzen hasi da.	Bere interesak eta trebetasunak identifikatzeko lehen urratsak ematen ari da.
<b>Enpatia eta komunikazioa</b>	Aparteko enpatia eta komunikazio-trebetasunak erakusten ditu pertzepzioak interpretatzean eta aurkeztean.	Enpatia- eta komunikazio-trebetasun handiak erakusten ditu.	Enpatiarako eta komunikaziorako oinarrizko trebetasunak erakusten ditu.	Garapen bidean dauden enpatia-maila eta komunikazio-trebetasunak erakusten ditu.	Enpatia eta komunikazio-trebetasunak erakusteko zailtasunak ditu.
<b>Etorkizunari buruzko hausnarketa</b>	Zehatz-mehatz eta modu errealistan planifikatzen du bere etorkizun akademiko eta profesionala.	Zenbait xehetasunekin planifikatzen du bere etorkizun akademiko eta profesionala.	Bere etorkizun akademiko eta profesionalaren oinarrizko plangintza egiten du.	Bere etorkizun akademiko eta profesionala planifikatzeko interesa agertzen hasi da.	Bere etorkizun akademiko eta profesionalari buruzko oinarrizko ideiak esploratzen ditu.
<b>Perspektiba-aniztasunaren balorazioa</b>	Perspektiba-aniztasuna aktiboki baloratzen eta preziatzen du, aparteko maila batean.	Perspektiba-aniztasuna behar bezala baloratzen eta preziatzen duela erakusten du.	Oinarrizko mailan, perspektiba-aniztasunaren garrantzia aitortzen du.	Perspektiba-aniztasunaren garrantzia onartzeko lehen urratsak egin ditu.	Perspektiba-aniztasuna gutxi baloratzen duela erakusten du.

## ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

# "NIRE MUNDUAREN ISLAK: BESTEEK NOLA IKUSTEN NAUTEN DESKUBRITZEA"

Jarduera-zk.: 2

**B(t)**  
Bizkaia with the talent





## ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

# ERANSKINAK

B(t)  
Bizkaia with the talent



**Ausartu Expo-Ekin-en distira egitera!**



Antzerki-konpainiak gonbita egiten dizu zure talentua eta sormena erakusteko agertoki paregabe batean, non istorioaren gidoilari eta sortzaile izan baitzaitezke.

**Islatu zure ikuspegia gidoi original batean.**

Aukera paregabea duzu nor zaren eta besteek nola ikusten zaituzten esploratzeko.

"Expo-Ekin" ez da antzerkia soilik; zure barne-mundurako bidaia bat da, eta zure grinak aurkitzen eta bokaziozko bidea zehazten lagunduko dizu.

**Animatu eta parte hartu**

## Jarraibideak

Aukeratu zure inguruko pertsona bat edo batzuk, eta eska iezaiezu zuri buruzko galdetegi hau betetzeko. Horrela, hobeto ulertuko duzu bestek nola ikusten zaituzten.

- Elkarrizketatuaren izena:
- Elkarrizketatuarekin duzun harremana:
- Elkarrizketaren data:
- Elkarrizketatzailearen izena:

### NOLA IKUSTEN NAUTE BESTEEK?

#### 1. Nola deskribatuko zenuke nire nortasuna hiru hitzetan?

- A. Sortzailea, independentea, jakinguratsua
- B. Ordenatua, arduratsua, xehetasunei begira dagoena
- C. Lagunkoia, lagunartekoa, enpatikoa
- D. Isilkorra, lotsatia, introspektiboa

#### 2. Zure ustez, zein dira nire indarguneak?

- A. Komunikazio- eta adierazpen-trebetasunak
- B. Gaitasun analitikoa eta problemak ebaztekoa
- C. Sormena eta pentsamendu berritzailea
- D. Diziplina eta sendotasuna zereginetan

#### 3. Zure ustez, zer arlotan hobetu ninteke?

- A. Denboraren kudeaketa eta antolaketa
- B. Gizarte-trebetasunak eta talde-lana
- C. Arriskuak edo erronkak saihesteko joera
- D. Iritziak adieraztea eta autokonfiantza

#### 4. Zure ustez, zer jarduera mota gozatzen dut gehien?

- A. Sormen-jarduerak (arte, musika, idazketa)
- B. Zeregin egituratuak eta antolatuak
- C. Talde-lanean egiteko proiektuak
- D. Jarduera bakartiak edo introspektiboak

**5. Zure ustez, nola egiten diet aurre erronkei edo arazoei?**

- A. Erabakitasunez eta ikuspegi praktikoarekin
- B. Konfrontazioak edo gatazkak saihestuz
- C. Pazientziaz eta analisi zehatzak eginez
- D. Jota edo zalantzati sentitzen zara

**6. Nire trebetasunak eta nortasuna kontuan hartuta, zure ustez, zein lanbide egokitzen zaizkit?**

- A. Sormenaren arlokoak (diseinatzailea, artista, idazlea)
- B. Lanbide teknikoak edo zientifikoak
- C. Besteei laguntzeko lanak (osasuna, hezkuntza)
- D. Lan autonomoa eta gizarte-interakzio txikia behar duten zereginak

**7. Zer aholku emango zenidake nire etorkizun profesionalerako?**

- A. Esploratu eremu bat baino gehiago eta izan pentsamolde irekia
- B. Indartu komunikaziorako eta talde-lanerako trebetasunak
- C. Egin aurre erronkei zure konfiantza handitzeko
- D. Saiatu zure trebetasun praktikoan eta zure interesen arteko oreka topatzen

**8. Iruzkina gehigarria:**

Beste iruzkinen bat egin nahi baduzu:

## Jarraibideak




Berrikusi galdetegietan jaso zenituen erantzunak.

- Lehenengo zutabea, idatzi harritura utzi zintuzten edo inkestatuaren eskutik entzutea espero ez zenituen bi edo hiru pertzepzio.
- Bigarren zutabea, idatzi zuk zeure burua ikusten duzun moduarekin bat datozen pertzepzioak.
- Zutabe horretan bertan, idatzi bi edo hiru adibide, non inkestatutako pertsonen erantzunek zuk zeure izaerari, trebetasunei edo nortasunari buruz lehendik zenekiena edo hautematen zenuena islatzen duten.

Fitxa bete ondoren, eztabaidatu zure taldean. Partekatu zuretzat zer pertzepzio izan ziren interesgarrienak eta zergatik. Informazio horrek gidoia prestatzen lagunduko dizu.

Harritura utzi ninduen pertzepzioak	Nire autoirudiarekin bat datozen pertzepzioak







Istorio labur baten gidoia egiteko  
eredua: "Martaren ispilua"

Gidoi honek oinarri gisa balio du ikasleek beren istorioak sor ditzaten. Horretarako, elkarrizketetako xehetasunak txertatzera eta autopertzepzioaren eta kanpo-pertzepzioaren arteko dinamika esploratzera animatzen ditu, modu sortzailean eta gogoetatsuan.

**Generoa:** Drama

**Iraupena:** 10 minutu, gutxi gorabehera

**Sinopsia:** Marta bigarren hezkuntzako ikasle bat da. Konturatuko da oso desberdinak direla bere gelako taldeak berari buruz duen pertzepzioa eta berak bere buruaz duena. Eskolako zenbait gertakariaren bidez, Martak aurre egingo die pertzepzio horiei, eta zerbait baliotsu ikasiko du bere buruari eta bere lagunei buruz.

## Agerraldia: Ikasgelan

**Lekua:** Ikasgela, egunez.

### Pertsonaiak:

- **Marta:** Neska barnerakoia. Besteek aspergarritzat jotzen dutela uste du.
- **Lucas:** Gelakidea, kanporakoia, Martaren laguna.
- **Clara:** Gelakidea, popularra eta bokala.

### Ekintza:

Marta bere mahai aurrean dago eserita, bakarrik, bere koadernoan marrazten. Lucas eta Clara albo batean daude, elkarrekin hizketan.

### Elkarrizketak:

- **Lucas:** (barrez) Ez, benetan, Clara. Marta da gure artean sortzaileena. Ikusi dizkiozu marrazkiak?
- **Clara:** (harrituta) Marta? Benetan? Beti iruditu izan zait isila eta hotz samarra.
- **Lucas:** Ez duzulako ondo ezagutzen. Barne-mundu ikaragarria du.

(Martak bere izena entzun du eta adi-adi jarri da, bere burua nabarmendu gabe).

## Agerraldia 2: Jolas-ordua

**Lekua:** Jolastokia, egunez.

**Pertsonaiak:**

- **Marta**
- **Lucas**
- **Clara**
- **Zenbait ikasle**

**Ekintza :**

Marta herabeki hurbildu da arte-proiektu bati buruz hitz egiten ari den talde batera.

**Elkarrizketak:**

- **Clara:** (Martari begira) O, kaixo, Marta. Egin nahi duzu bat gure proiektuarekin? Lucasek esan du trebea zarela artean.
- **Marta:** (zalantzati) E, bai, lagundu nezake.
- **Lucas:** (animatuta) Primeran! Ukitu berezia eman diezaiokeen norbait behar dugu, eta zu iaioa zara horretan.

*(Martak irribarre egin du; baloratuago sentitu da).*

## Agerraldia 3: Azken hausnarketa

**Lekua:** Martaren gela, gaua.

**Pertsonaiak:**

- **Marta**

**Ekintza :**

Marta bere ispiluaren aurrean dago, egun horretan gertatutakoari buruz hausnartzen.

**Elkarrizketak:**

- **Marta:** (Bere buruari) Beti pentsatu izan dut besteek aspergarriztat jotzen nindutela, baina agian... Neure burua haien begien bitartez ikusi besterik ez nuen behar. (Irribarre egin du) Bihar egun berri bat izango da neu naizen bezala agertzeko.